



BARNE-ESTALDURAK – Bikaintasun Maila

Prozedura ireki bidez eta lehiaketagatiko esleipen bidez kontratatzeko ingurumen irizpideak

1. Kontratuaren helburua eta espezifikazioak

1.1. Kontratuaren Helburua

Barne-estaldurei buruzko ingurumen-irizpideak kontratu hauetan sartu ahal izango dira: eraikuntzaren [oinarrizko proiektuaren edo gauzatze-proiektuaren erredakzioa] edo barne-eraberritzearen [oinarrizko proiektuaren edo gauzatze-proiektuaren erredakzioa].

Atal honetan, garrantzitsua da aipatzea ingurumen-konsiderazioak kontuan hartuko direla atalean bertan:

1. Koadroa

Kontratuaren helburua da zerbitzu hau kontratatzea: [proiektuaren izena]aren [eraikuntza/barne-eraberritzea]ren [oinarrizko proiektuaren edo gauzatze-proiektuaren erredakzioa].

Diseinuari eta materialen aukeraketari dagokienez, proiektuak kontuan hartu beharko ditu ingurumen-inpaktuak eraikinaren bizi-ziklo osoan minimizatzen dituzten alderdiak.

1.2. Derrigorrez bete behar diren eta adjudikazio prozesuetan balora daitezkeen espezifikazio teknikoak

Barne-estalduren alderdiak barne hartzen dituzten proiektuak mota askotakoak izan daitezkeenez, [oinarrizko proiektuaren edo gauzatze-proiektuaren] memoriaren erredakzioak proiektu bakoitzarentzat esanguratsuak diren alderdiak soilik hartu behar ditu kontuan. Jarraian, kontuan hartu beharreko irizpide multzo bat aurkeztuko dugu; irizpide horietatik, garatu beharreko lanarentzat esanguratsuenak direnak aukeratu beharko dira.

Gainera, eskaintzak modu egokian baloratu ahal izateko, pleguan adierazi beharko da zein den obrarentzat estimatzen den gehieneko aurrekontua; era horretan, enpresek ingurumen-hobekuntzak eskaini ahal izango dituzte modu koherentean.

2. Koadroa

[Eraikuntzaren / barne-eraberritzearen] gutxi gorabeherako prezioa hauxe da: [gutxi gorabeherako balioa jarri].

3. Koadroa

[Oinarrizko proiektuaren edo gauzatze-proiektuaren] memoria orokorrean ingurumen-hobekuntzaren alderdi hauek sartu beharko dira (*esanguratsuenak aukeratu, jarraian ageri direnen artean*).

1.2.1. Barne-estalduren irizpide orokorrak

4. Koadroa

Materialen akaberen garbiketarako, ez da beharrezkoa izango da produktu toxiko edo urratzailerik erabiltzea, ezta Konposatu Organiko Lurrunkorrak (KOL) emititzen dituen produkturik ere.

5. Koadroa

Estaldura zeramikorik erabiliz gero, horien esmalteek ez dute metal astunik edukiko (berun, bario, kadmio, molibdeno selenio, banadio, zink edo eztainua).

6. Koadroa

Zoruen zurari eta beste barne-estaldura batzuei aplikatutako tratamenduak beharrezkoak direnean soilik erabiliko dira. Haien erabilera beharrezkotzat jotzen bada, ingurumen-inpaktu txikikoak izango dira, metal astunak dituen kontserbagarririk gabe eta substantzia toxiko edo arriskutsurik gabe (adibidez, materialen I. motako etiketak, hala nola, Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoa, ANAB-IBO-IBN, Aingeru Urdina edo I. erdi-motakoa, Green Guard bezalakoa).¹

¹ Ingurumen-etiketatzeari buruzko informazio gehiago ikusteko, argitalpen hau kontsulta dezakezu: "Produktuen Ingurumen Etiketak. Produktuak hobetzeko ingurumen-irizpideei buruzko gida", Ihoberen webgunean: <http://www.ihobe.eus/>

7. Koadroa

Barne-estalduretan esku hartzen denean, hori aprobetxatu beharko da barne-isolamendurako irtenbideak txertatzeko, eraikinaren eskari energetikoaren jaitziera bermatzeko.

8. Koadroa

Baloratu egingo da gainazalaren % 40 baino gehiago barne-estaldura ekologikoez egitea (zura, ehuna, papera, eta abar.), hau da, I. motako edo I. erdi-motako ekoetiketa ofizial batean (Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoa, Aingeru Urdina, Nordic Swan, Environmental Choice (Australia), Green Label (Hong Kong) edo horien baliokidea) osaketa, produktu kimiko eta isurientzat ezarritako baldintzak betetzen dituzten barne-estaldurez, edo basoen kudeaketa jasangarria bermatzen duten barne-estaldurez, zurezko produktuen kasuan (FSC/PEFC).

9. Koadroa

Erabilera administratiboko eraikinetan, baloratuko da barne-estaldurek sarbidea erraztea instalazio elektrikoetara eta datuen instalazioetara, barneko banaketaren aldaketak modu errazean ahalbidetuz eraikinaren bizi-ziklo osoan.

10. Koadroa

Baloratu egingo da jatorri birziklatuko lehengaiak dituzten barne-estalduren azalera % 20tik gorakoa izatea. Horrez gain, adierazi beharko da zer proportziotan (%) den birziklatua material horien lehengaia.

11. Koadroa

Baloratu egingo da gainazalaren zer proportzio (%) gauzatzen den eraikuntzako elementu aurre-fabrikatuez edo estandarizatuez (industrializatuak), hots, in situ egin ez diren elementuez. Horrek handituko du elementu horiek berriz erabiltzeko aukera, hondakinen sorrera murriztuko du, bai eraikuntzan eta bai ekoizpenean, eta ekoizpen-prozesuaren eraginkortasuna maximizatuko du.

12. Koadroa

Baloratu egingo da gainazalaren zer proportzio (%) instalatzen den grabitatez edo juntura lehorrez egindako barne-estaldurez; izan ere, horrek beren birziklapena errazten du bizi-zikloaren amaieran.

13. Koadroa

Baloratu egingo da prestazioren bat eransten duten material berritzaileen erabilera; prestazio horiek honako hauek izan daitezke, besteak beste: eraikinaren eskari termikoa jaitea, konforta edo barneko airearen kalitatea hobetzea, materialak iraupen luzeagokoak izatea, edo garbiketa eta mantenua errazagoa izatea. Material horiek honelakoak izan daitezke: fase-aldaketako materialak; konposatu jakin batzuen aurrean kimikoki erreakzionatzeko gaitasuna duten estaldurak; nano-partikulen estaldurak, eta abar.

1.2.2. Paramentuei buruzko irizpideak

14. Koadroa

Igeltsu ijeltuzko panelak % 100ean birziklatutako kartoiz egindakoak izan behar dira, edo modu jasangarrian kudeatutako basoetatik datorren kartoiz egindakoak.

Baloratuko da igeltsuzko panelek igeltsu birziklatuzko proportzio (%) bat izatea. Materialari dagokionez, adierazi behar da zein den igeltsu birziklatuzko ehunekoa, errekontza-gasen desulfuraziotik datorren igeltsua (FGD igeltsua) barne sartu gabe.

15. Koadroa

Barneko banaketari dagokionez, baloratuko da juntura mekanikoak erabiltzeko proposamena, espazioa malgutasunez birkonfiguratu ahal izateko eraisketarik egin behar izan gabe.

1.2.3. Zoladurei buruzko irizpideak

16. Koadroa

Moketak edo zurezko zoladurak, binilak/linolioak, kortxo/goma jartzen direnean, horiek ez dituzte gaindituko E1 klaseko emisioen mugak (formaldehidoaren emisioa < 3.5 mg/m²h).

17. Koadroa

Zoladurak instalatzeko erabiltzen diren itsasgarriek Konposatu Organiko Lurrunkorren (KOL) emisioen muga hauek errespetatuko dituzte:

- Zurezko zoladuren instalazioetan, ez dute gaindituko Konposatu Organiko Lurrunkorren (KOL) 100 g/l.
- Moketen instalazioan, gehieneko muga Konposatu Organiko Lurrunkorren (KOL) 50 g/l izango da.

18. Koadroa

Baloratuko da zoladura gehienak azkar berrizta daitezkeen materialez osatuta egotea: banbua, kortxoa, linolioa...

1.2.4. Barne-pinturentzako irizpideak

19. Koadroa

Barnean erabiltzen diren pinturek ezaugarri hauek izango dituzte:

- Barnealdean erabiltzen diren horma-pintura guztiak (EN 13300 arauarekin edo horren baliokidearekin bat etorritik) ur-oinarrikoak izango dira eta Konposatu Organiko Lurrunkorren (KOL) edukia ia zero izango da (< 10 g/l)
- Gutxienez 15 m²/l-ko errendimendua duten eta estaltze-ahalmen aldetik % 98ko opakotasuna duten pinturen kasuan, berriz, Konposatu Organiko Lurrunkorren (KOL) edukia 250 g/l-tik beherakoa izango da.
- Gainerako produktu guztien kasuan (honako hauek barne sartuta: hormakoak ez diren eta 15m²/l-tik beherako errendimendua duten pinturak, bernizak, zurerako tinduak, lurzoruen estaldura eta pinturak eta gisa bereko produktuak) Konposatu Organiko Lurrunkorren (KOL) edukia 180 g/l-tik beherakoa izango da.

1.2.5. Hondakinen Kudeaketari buruzko azterlana

2019. Koadroa

Hondakinen Kudeaketari buruzko Azterlanak barne hartu beharko ditu aurreikusitako hondakinen % 50 prebenitzeko/balorizatzeko helburuak.

Baloratuko da Hondakinen Kudeaketari buruzko Azterlanak barne hartzea aurreikusitako hondakinen % 70 baino gehiago prebenitzeko/balorizatzeko helburuak.

2. Gauzatze-irizpideak

20. Koadroa

Lanak, txostenak eta bestelako materialak formatu elektronikoan entregatuko dira, ahal izanez gero.

Beharrezkoa bada zerbait inprimatzea, eta irakurtzeko arazorik ez badago, paper birziklatua erabiliko da, bi aurpegietan inprimatuta eta modu monokromoan (zuri/beltzean).

3. Adjudikazio irizpideak

Adjudikazio irizpideetan, zehatz-mehatz espezifikatu behar da zer ponderazio emango zaion elementu baloragarri bakoitzari; adibidez:

21. Koadroa

Barne-estalduren ingurumen-irizpideak, 5,5 punturaino:

- I. motako ekoetiketaren batean osaketa, produktu kimiko eta emisioentzat ezartzen diren betekizunak betetzen dituzten estalduren ehunekoa (% 5 baino gehiago) edo basoen kudeaketa jasangarria bermatzen dutenak, zurezko produktuen kasuan [gehienez puntu 1]
- Eraikin administratiboetan, instalazioetarako sarbide erraza [gehienez puntu 1]
- Jatorri birziklatuko lehengaia duten materialak dituen gainazalaren ehunekoa (% 20 baino gehiago) [gehienez 0,5 puntu]
- Barne-estaldura aurre-fabrikatuak edo estandarizatuak (industrializatuak) dituen gainazalaren ehunekoa [gehienez 0,5 puntu]
- Grabitate edo juntura lehorren bidez instalatutako barne-estalduren gainazalaren ehunekoa (%) [gehienez 0,5 puntu]
- Prestazio erantsiak gehitzen dituzten material berritzaileak [gehienez 0,5 puntu]
- Igeltsu birziklatua duten igeltsuzko panelak erabiltzea [gehienez 0,5 puntu]
- Banaketa juntura mekanikoen bidez egiteko proposamena [gehienez 0,5 puntu]
- Zoladura gehienak azkar berrizta daitezkeen materialez egindakoak izatea [gehienez 0,5 puntu]

Hondakinen kudeaketa, puntu bateraino:

- Hondakinen Kudeaketari buruzko Azterlanak % 70etik gorako helburuak ezartzea hondakinen prebentziorako/balorizaziorako [gehienez puntu 1]

4. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintzen aurkezpena

Eskaintzen eta aurkeztutako dokumentazioaren ebaluazioa errazteko, pleguan modu konkretu bat exijituko da dokumentazioa aurkezteko. Informazio hori lehiaketaren iragarkian zehaztuko da, balizko lizitatzailleak behar beste denboraz informatzeko. Kontratatzen den proiektu motaren eta xehetasun mailaren arabera, hobeto definitu ahal izango da zer-nolako dokumentazioa aurkeztu beharko den. Edozein kasutan, jarraian adierazitako elementuak jasoko dira:

22. Koadroa

Enpresa lizitzaile bakoitzak ingurumen-dokumentazio hau aurkeztu beharko du, jarraian zehaztutako moduan:

- a) Proiektuaren **memoria deskribatzailea**. Ingurumen-irizpideak baloratzeari begira, memoriak barne hartu beharko ditu lehen aipatutako irizpideei buruzko informazioa, bai exijitutako irizpideei buruz eta bai baloragarriei buruz.
- b) Proposatzen diren materialen zerrenda, I.² Eranskinaren arabera (hornitzaileen kontrol-zerrendakoa), kostuen desbiderapenaren estimazioarekin, bai produktu bakoitzeko eta bai obra osoarentzat.
- c) **Hornitzaileentzako kontrol-zerrenda**², behar den bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Horri gratatuta, espezifikazioak betetzen direla bermatzen duen dokumentazio egiaztatzailea aurkeztuko da, bai derrigorrezko espezifikazioei dagokienez eta bai balora daitezkeen artean enpresa lizitzaileak bere borondatez onartzen dituen dagokienez.

² Kapitulu honen "Hornitzaileentzako egiaztapen-zerrenda" atala ikusi (<http://www.ihobe.eus>).